

Dominique Thomas GALEko ustezko 'Dama Beltza' etzi epaituko dute

Baionan epaituko dute «gaizkile elkarteekiko kidetasuna» akusaziopean

Baionako Epaitegi Korrekzionalak, Dominique Thomas, ustezko 'Dama Beltza' epaituko du datorren ostegunean. Dominique Thomas GAL erakundearen «gaizkile elkarteekiko kidetasuna» akusaziopean auzitaratua izango da.

M. ESTEBAN / BAIONA

Bere abokatuak, Georges Catalak EGUNKARIAri egin deklarazioetan zioen «beste akusazioak erori direnez, orain GALEkin ukan zituzkeen harremanak direla eta epaituko dute. Ni GALEz mintzatuko naiz, azpimarratzeko espainol erakunde parapolizial honen erantzukizunaz mugaz bigarrenean».

Dominique Thomas akusatua izan zen, Jose Amedo Fouce, Christian Hittier eta Patrick Pironneau GALEko kideekin harremanak izateaz. Baiona, Ziburu eta Donibane Lohizunen 1983 eta 1985 bitartean GALEk euskal errefuxiatuen aurka egindako atentatu batzuetan parte hartzeaz akusatua izan zen. Orain dela bi urte, 1989ko irailaren 22an Dominique Thomas libratua izan zen. Paberearen GALEko Ganbarak askatu zuen, zuzen GALEko zulo batean aurkitu izan ziren arropak, oinetakoak eta ile horailak ez ziren Dominique Thomasen neurrikoak.

Datorren ostegunerako, Georges Catala abokatuak, Jean Marc Dufour frantses inspektore ohiaren lekukotasuna eskatu zuen. Dominique Thomasen abokatuaren ustez: «Berak bere liburuan egiazko Dama



Dominique Thomas, GALEn ustezko «dama beltza».

✓ Baiona, Ziburu eta Donibane Lohizunen 1983 eta 1985 bitartean GALEk euskal errefuxiatuen aurka egindako atentatu batzuetan parte hartzeaz akusatua izan zen. Orain bi urte utzi zuten libre.

Beltzaz hitzegiten zuen baina, berarekin hitzegin nuen eta badaki Dominique Thomas ez dela. Maleruski

ez daiteke Baionara etorri datorren ostegunean».

MANIFESTALDIA AUZITEGI AURREAN

ESK-k, Errefuxiatuen Sustenguko Komiteak, eta Gureak, euskal preso politikoen ahaide eta lagunek dei egin dute elkarretaratze batera Baionako auzitegi aitzinean, datorren ostegunean goizeko 9.00etan. Ageri batean ESK-k dio: «Epaitegi Korrekzionalan alderdi zibila izateko biktimak ez daitezke ordezkatuak izan, ez zuzenki eta ez elkartearen bidez. Berriz ere, justizia baina, frantses botereak espainol gobernuarekin kolaboratzea hautatu du».

Garaikoetxeak ETari armak uzteko eskatu ziola ulertu du Cañok

MADRIL

Carlos Garaikoetxea EAko lehendakariak HBri Euskal Herriaren autodeterminazioari buruz berriki esandakoaren irakurketa «positiboa» ETari armak uzteko esatea da, Javier Caño Eusko Jaurlaritzako Justizia kontseilariaren ustez.

Madrilen egindako adierazpenetan, kontseilariak esan zuenez, berak EAko lehendakariaren hitzetan ateratako irakurketa «pertsonal» eta «positiboa» zera da, «derrigorrezko baldintza armak uztea» litzatekeela, «eta hau esatea eta terrorismoa dagoen bitartean jaun-andere hauekin honetaz eta ezertaz ere ezin dela hitzegin esatea gauza bera da», erantsi zuen.

Cañok atzo sinatu zuen Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren (BJKN) egoitzan erakunde honen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko ituna, Euskal Autonomi Elkartera etorriko diren epaileek eta abokatuak bereziki hezitzeko. Akordio honek bi erakundeek hogeina milioi pezetatoko (milioi bat libera baino gehixeago) inbertsioa egitea jasotzen du.

EUROPAKO GIROAN KOKATU BEHARRA

Garaikoetxearen adierazpenak «Europak une honetan bizi duen giroan» kokatu zituen Javier Cañok, «ondoko komunitate batean sortu den giroan eta HBk independentzia jarrera formalara eragiten duten planteamenduez sortzen duen giroan», ituna sinatu ondoren emaniko prentsaurrekoan eta kazetariei



Javier Caño.

erantzunez adierazitakoaren arabera.

Euskal Herrian diharduten epaileak ETaren atentatua jasan dezaketen beldur ote diren galde-tuta, Cañok erantzun zuen «gizarte osoa» dagoela «metrailetan ikuspuntuan».

Juan Alberto Belloch BJKNko partaideak eta heziketaz arduratzen denak, «terrorismoa ez balego bezala» lan egitearen beharra azpimarratu zuen.

Javier Cañok gainera, gogorazi zuen «Estatutuaren ikuspuntutik» Justizia arloko kompetentzien igorpena ez dela osorik egin, «giza bitartekoak falta direlako».

Jose Antonio Ardanza EAko lehendakariak berriki Egiagarai Administrazio Publikoetako ministroarekin izandako bileraz, «ezer zehatzik» ez zekiela esanda ere, komunitate historikoen asmoak atzeratzeko eskakizuna egin zela azaldu zuen, «143. artikuluko komunitateen arazoak konpondu bitartean».

Hilaren 27an politika orokorraz eztabaida EAeko Legebiltzarrean

GASTEIZ

Gasteizko Legebiltzarrek hilaren 27an egingo du ziurrenik bere lehen biltzura politika orokorri buruzko eztabaidarekin, Vasco Press agentziak zabaldu duenez.

Jose Antonio Ardanza, EAeko lehendakariaren hitzaldiarekin emango zaiola hasiera eztabaidari. Azkenaldiko gobernuak hainbat gertaeren inguruan Ardanzak duen jarrera azalduko du, Ardanzak eta datorren kurtso politikari begira lehentasuna duten gaien buruz hitzegin du.

Ardanzaren hitzaldiaren ostean, erantzuteko aukera izango dute alderdi politikoetako bozeramaleek. Ordezkaritza haundiena duen alderdiak hasita, bakoitzak ordu erdia izango du horretarako.

Pentsatzekoa da baita ere, Euzko Alderdi Jeltzaleak, Eusko Alkartasunak eta Euskadiko Ezkerrak osagai izatea politika orokorri buruzko eztabaidan. Gobernu hirukoitzaren fruituak kritikatu dituzten oposizioak, PSE-PSOE bereziki, iragarria duen bezala.

Alderdi honek, Gasteizko Lege-



Jose Antonio Ardanza. OIALDE

biltzarreko mahaiari eskatu zion orain egun gutxi, politika orokorri buruzko eztabaida lehenbaitlehen egin zedila, irailaren 13an edo gehinera 20an. «Behar haundia dago politika orokorreko gaiak haundiak eztabaidatzeko, eta legebiltzarreko funtzio eta lanak arintzeko» zioen PSE-PSOE bere eskakizunean.

Lerro artean

Argibideak



Egun hauetan ez daude geldirik komunikabideak. Ez daude prest gertatzen denaren segimendu soila egiteko.

Prozesuetan esku hartzeko ahalmena erabiltzen ari dira. Hor dugu, esate baterako, autobidearen auzia. Lurraldea-Galdosen arteko arreakordioa momentu delikatu batean dagoenean komunikabide batzuek eskua sartu dute. *El Correo Español*ek igandean honako titularra zeraman artikulua argitaratu zuen: «EAJk autobideari buruzko 'edozein erabaki' onartuko duen ala ez berresteko eskatu dio HBri». Egunkari honek bakarrik jakin omen zuen EAJren eskaera horren berri, beste inon argitaratu ez bait zen. Baina ustezko eskaera hori ez zen EAJko inongo buruzagi edo arduradunen adierazpenetan ezta alderdiaren inongo oharretan ezta inongo iturrietan oinarritzen.

Guzti horiek eskaera bera benetako den zalantza jartzera eta bere argitalpenaren intentzioaz galdeztera bultzatzen dute. *El Mundo* egunkariak Lurraldea koordinadorearen «eztabaidarako barne dokumentu baten» zati bat eman zuen atzo argitaratu, eta bertan azaltzen zen analisi bati buelta emanez honako titularra gauzatu zuen: «Lurraldea taldeak ETaren ekintzan konfidantza zuen autobideari buruzko negoziatzeak».

Azken egunotako gai nagusieta-ko bat Ertzaintzaren Bilboko operazioa izan da, eta Juan Maria Atutxa Barne kontseilariaren agerraldiarekin ezin da ukatu nolabaiteko auzia izan dela eta horretan komunikabide batzuek esku hartu nahi izan dutenak. Kasu honetan, besteetan bezala zaila da esku hartze horren autonomia. Prozesu honetan, *Deia* egunkaria nabarmendu egin da Barne Saileko iturrietatik zetozen albisteak osatzeagatik. Atzo bertan, «Ertzaintzaren ikerketaren iturriak» aipatuz, hiru

albiste osatzen zituen. Esanguratsua da albiste horietako zati garrantzitsu batzuk —'Gadafiren arazoak', adibidez— *Abc* egunkariak joan zen astean argitaratu izatea. Horrez gain, aipatzekoa da «ikerketako iturriek» *Deiaren* bidez, eskaini duten Begoñako gertaeren bertsio berria: Mentxaka ertzainaren eskuinean zihonan ertzainak «25 zentrimetroatik» tiro egin zion Ormazabal eta lokian eman zion, «goitik beherako norabidearekin». Segidan, «errematatzeko tirorik» ez zela egin azaldu zuten aipatutako iturriek, «tiro hori goitik behera egiten delako». Dirudienez, artikulugileak oker bat izan du eta justifikatu nahi zuena gehiago nahasi du. Gauzak argitu nahi badira, ordea, bertsio ofizialak ez erantzundako galderak eta zalantzak ugari ditu *Egineko* I. Iriondoren «Argitzearen bila» artikulua ongi erakusten duenez.

PELLO URZELAI